

BALOREZKO PROPOSAMENA

Idea hau gizartean behar bat antzeman dugulako bururatu zaigu. Hasteko, jendearen elikadura txarra aldatu nahi dugu produktu osasuntsu eta ekologikoak sustatuz. Halaber, planetari kalte egiten dioten giza-ekintzak murriztu nahi ditugu. Horregatik, jatetxe bat sortu dugu non ohiko zerbitzuez gain, bestelako arlo berritzaileak kontuan hartzen dira:

- **PRODUKZIO PROPIOKO LEHENGAIAK.** Lehengai gehienak produkzio propioetik lortzen dira. Besteak hornitzaile lokalengandik lortuko ditugu (Pasaiako arrantzaleak, Altzako nekazariak...). Modu honetan lehengaiak %100 ekologikoak direla ziurtatu dezakegu.



- **ELIKADURA TAILERRAK HAINBAT HIZKUNTZATAN.** Elikadura tailerrak hizkuntza desberdinetan uztartuko ditugu. Tailer hauen bidez gure bezeroei elikadurarekin lotutako kontsumo eta ohitura tailerrak euskaraz, ingelesez eta gazteleraz esakainiko dizkiegu.



- **AUTOKARABANENTZAKO EGOKITUTAKO PARKING-A.** Horrek erreztasun handia ematen die etorri berriei gure jatetxean kontsumitzeko edota tailerretara jotzeko.



- **UDAN UMEAK ZAINZKEKO ZERBITZUA.** Udako goizetan bost eta hamabi urte bitarteko umeak zaintzeko zerbitzua eskainiko dugu. Jarduera honen bidez haurrak naturarekin eta gastronomiarekin kontaktuan sartzea lortzeaz gain, gurasoei irtenbide bat eskeintzen diegu umeen zaintza tradizionala ez dena.



Gure helburu nagusia janariaren kontsumo arduratsua sustatzea da, produktu lokal zein ekologikoaz baliatuz eta urte sasoi bakoitzean dauden elikagaiak erabiliz. Era berean, bezeroek elikadura ohitura osasungarriak bereganatuko dituzte ingurumena gehiago errespetatuz. Gainera, bertako ekonomia sustatuko dugu.

Gure bezeroen zein gure jarrerari esker planeta zaintzen dugu: Km0-ko produktuak kontsumitzeak garraio biderako elementuek sortzen dituzten gasak atmosferara isurtzea eta bestelako hondakinak sortzea ekiditen du.

Bestetik, baratzetan produktu kimikorik ez erabiltzeak bertako ekosistemaren ongizatea bermatzen du.

Gure balorea kualitatiboa da; produktuen kalitateak eta eskuragarritasunak negozioaren ideia beraren berritasunarekin batera lehiari aurre egiteko aukera ematen digu, gure marka kalitatezko produktu ekologikarekin erlazionatuz.

Horrez gain, gure jabetxea toki estrategiko batean kokatuta egongo da: Garbera ondoan. Ohitura osasuntsuak sustatzen dituen enpresa merkataritza gune kontsumista baten ondoan kokatzea kontraesana dirudike guztiz aurkako filosofiak direlako. Bestalde, onurak asko dira:

- 1) Garbera ondoan egoteak bezero potentzial asko izatea esan nahi du. Era berean, oso ondo konektatuta dago errepide nagusiekin eta erraza da bertara iristea.



- 2) Erraza bada iristea, aparkatzea askoz gehiago. Izan ere, Garberak parking berria eraiki du. Horrela, gure lursailean karabanak besterik ez lukete aparkatuko; bertan baitituzte zerbitzu guztiak: ur zikinak hustutzeko makinak, ur garbia betetzeko depositua, baita elektrizitatea edo butanoak birkargatzeko aukera ere.



- 3) Merkatagunearen ondoan egoteak aukera ematen die gurasoei erosketak egiteko lasai-lasai; haurrak gure tailerretako batean uzteko aukera dute eta.



- 4) San Markos mendiaren ondoan egoteak aukera asko ematen digu etorkizunari begira: ibiltariak bezero potentzialak dira eta ingurune naturala ezinhobea da udan egingo diren udalekuei begira; irteerak egin ditzazkegu.



- 5) Erosiko genukeen lehen lursailean (garden zen bere garaian) eraikuntza bat dago jadanik: kristalezko eraikuntza erraldoi bat. Hobekuntza txiki batzuk eginez gero, ingurune argitsuak izango genituzke tailerrak emateko. Egia da jatetxerako instalazio berriak egin beharko genituzkeela.



- 6) Lekua oso handia denez, baratza jarriko genuke jatetxearen ondoan produktu propioa ekoizteko zein umeei tailer praktikoak emateko.



- 7) Azkenik, gure helburu nagusia lortzeko leku ezinhobea dugu Garbera; bertara doazen bezero askok jarrera kontsumista baitute, horrek aukera emango liguke haien pentsakera aldatzen hasteko.

